




Afiliazioa %1,8 handitu zen irailean

Gizarte Segurantzako afiliazioa

Urte bakoitzeko iraila. Mila



Iturria: Gizarte Segurantza.


Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,8 hazi zen irailean aurreko urteko hileko beraren aldean.

Aldakuntza tasa hori aurreko bi hilabeteetan erregistratutakoaren antzekoa da. Guztira, ia 975.900 afiliazio erregistratu ziren, irail batean ezagutu den kopururik handiena baita.

Langabezia erregistratua %6,5 jaitsi zen irailean

EAEko langabezia erregistratua

Urte bakoitzeko iraila. Mila



Iturria: SEPE.


Irailean, Lanbideren bulegoetan izena emanda zeuden langabeen kopurua %6,5 murriztu zen 2021eko hil beraren aldean. Guztira, 111.700 langabe daude enplegu bulegoetan erregistratuta. Horietatik 64.600 emakumeak dira. Hilabete horretan gazteen langabeziak beherakada handia izan du (-%15,0).



Abuztuko IPIa %5,6 hazi zen 2021eko datuaren aldean

Industria produkzioaren indizea

Urte bakoitzeko abuztua. Indizea




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratu duen informazioaren arabera, IPIa %5,6 hazi zen abuztuan urte arteko tasan. Horri esker, 2022ko produkzioa pandemiaren aurreko urteetako balioetara hurbildu da. Gorakada oso handia izan zen kontsumorako ondasunetan (%15,3) eta energia ekoizpenean (%15,8).

Espainiako PMI konposatua 50etik behera dago

Espainiako PMI konposatua

Indizea



Iturria: Markit.

Irailean, Espainiako PMI indize konposatua 48,4 puntutan kokatu zen, ekonomiaren hedapena eta uzkurdura bereizten dituen mailaren azpitik, alegia. Zerbitzuek atzerapausoa eman zuten eta 48,5era jaitsi ziren ziurgabetasunagatik eta inflazio handiaren eraginez. Halaber, eskaera berriek behera egin zuten berriro.